

**BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA.** Taldea desegiteko erabakia bertan behera utzi behar dela uste du Kirogak

# Cardenalen txostena ezagutu eta gero, neurriak iragarri ditu Batasunak

UPNk eta CDNk berretsi dute taldea desegiteko erabakia legala zela

A. Barandiaran | IRUÑEA

Batasunak hainbat ekinbide iragarriko ditu datozen egunotan Parlamentuko eta Iruñeko Udaleko taldearen desegitea erabaki zutenen aurka, eta horien artean ezin dira neurri judizialak baztertu, Shanti Kiroga parlamentariak atzo adierazi zuenez.

Jesus Cardenal Espainiako Fiskal Nagusiak joan den astean adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Mahaiak ez zuela delituzko egin Batasunaren taldea desegin gabe utzita. Kirogak nabarmendu zuen Batasunak, Udalaren eta Parlamentuaren erabakiaren aurka jarritako helegitean, argudiatu zutela talde politikoa eta talde parlamentarioa edo udal taldea desberdina zirela, eta fiskalak arrazoia eman diela.

Bi erakunde hauen erabakia bertan behera eskatzea «logikoa» izango zela esan zuen Ki-

**J. IGNACIO DEL BURGO**

UPNko diputatua  
Espainiako Kongresuan

«Batasunakoei egin dakiekeen oparirik onena da Jesus Cardenalen txostena»

rogak, baina ez zituen erabakia aurreratu nahi izan. «Ikusi egin beharko dugu beste ardurak ere badauden», adierazi zuen.

**Catalan: «Nafarroarengatik egin genuen»**

Batasuna talderik gabe uzteko erabakiaren alde agertu ziren UPNk eta CDNk orduko argudioak berretsi zituzten atzo, eta Alberto Catalan alderdi nagusiaren bozeramaileak «Nafarroarengatik» egin zutela adierazi

zuen. «Oso lasai gaude, Nafarroako gizarteak nahi zuena egin genuelako. Nafarroako Parlamentuan, EAEn gertatu zenaren kontra, terrorismoaren aurka borrokatzeko erabakia hartu zen. Inork ez du dudan jartzen ETaren eta Batasunaren arteko lotura».

Catalanek ez zituen fiskalaren argudioak baloratu nahi izan, eta parlamentariak «demokrazia defenditu» behar dutela azpimarratu zuen. «Ezin da akordio honen zilegitasuna zalantzan jarri», esan zuen. «Gu oso lasai gaude. Urduriago egin beharko lukete erradikalekin zuriakeriatan dabilzanek».

Jose Andres Burguete CDNko parlamentariak ere erabaki hura hartzeko «txosten juridikoak» egon zirela gogoratu nahi izan zuen, eta fiskal nagusiaren iritzia «beste iritzia bat» zela esan zuen. «Horrek ez du esan nahi akordioak berrikuskatu behar-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS  
Shanti Kiroga, atzo.

ko direla». PSNk —talde honek babestu zituen taldea desegiteko erabakiak— ez zuen atzo baloraziorik egin nahi izan.

Jaime Ignacio Del Burgo UPNko diputatua, bestalde, kritikoa ageri zen Cardenalen irakurketarekin, eta txostena «berriro aztertze» eskatu zion fiskal nagusiari, «Batasunari oparia ez egiteko».

Espainiako Kongresuko Konstituzio Batzordeko presidentek Nafarroako Parlamentuak «zuzen» jokatu zuela defenditu zuen atzo. «Talde parlamentarioek pertsonalitate juridikoa dute, baina alderdie-tatik sortzen dira».

EA

## Arabako Biltzar Nagusiei atzera egiteko eskaera

Eusko Alkartasuneko biltzarkide Mikel Mintegik Batasunaren aurka hartutako neurriak bertan behera uzteko eskatu dio Arabako Biltzar Nagusietako Mahaiari. Jesus Cardenal Espainiako fiskalburuak hartutako erabakiaren ildotik egin du eskakizuna EAko biltzarkideak, eta esan du Mahaiak Batasuna taldea desegitean hartutako erabakiarekin «sistema demokratikoaren» aurka joan dela.

Mintegiren aburuz, Biltzar Nagusietako araudiak ez zuen taldea desegiteko aukerarik jasotzen. Hartara, «aurreko egoerara» itzuli beharko litzatekeela iritzi dio Mintegik, alegia, Arabako Sozialista Abertzaleak-ek berriz ere taldea izan beharko luke eta dagozkion ordainsariak jaso. Mintegiren hitzetan, eskari horrekin EAK «justizia eta demokrazia» lortzeko aldarrikapena baino ez du egiten, «bakea erdies-terko bide bakarra delako».

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

**B**izkor ibili beharko dute Iruñean Parlamentuko egoitza berriari azken ukituak ematen. Bizkor, eta eguraldiari erreguka. Bihar Espainiako errege-erreginen bisita dago iragarrita, Nafarroako Gortek izan zirenen inaugurazio ekitaldi ofiziala egiteko, baina ia bi urteko atzerapenen ondoren, atzo, egoitza zabaldu eta bi astera, itaxurak ziren Parlamentuan. Itaxura itxurosoak. Itaxura asko. Gutxienez hiru balde gorri eta urdin eskatzen zituzten itaxura dotoreak. Bi egunetan konpontzen zailak irudiz.

Borboikoak etortzen diren aldiro gertatzen den bezala, mugimendu handia egon da aste-buru luze honetan —ostiralean jai izan zen Iruñean, eta bihar Nafarroako Eguna da— Tolo-sako Navas kaleko egoitzan.

Ahaztutako eskudetak sarre-rako eskaileretan jartzeko langileak tinko ari ziren goizean goizetik, eta protokoloko arduradun guztiak patio handian hitzaldietarako propio jarritako oholtzari begira zeuden. Madrildik iritsitako segurtasun taldeko kideak estolderiak goitik

## Itaxurak erregearendako

**BORBOIAREN BISITA.** Nafarroako Parlamentuaren egoitza berriaren inaugurazioan parte hartuko dute, bihar, Espainiako errege-erreginek.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Gutxienez hiru baldetan bildu zituzten, atzo, sabaitik behera zetozen ur tantak.

behera aztertzen, eta elektrizitate, iturginak, eskobatzailak eta igeltseroak gora eta behera.

Eta patio erdian, Borboikoak ez ezik, Espainiako Justizia Ministroa, Espainiako Kongresuaren burua, Nafarroako Gorteen presidentea eta Nafarroako Parlamentuko eta Gobernuako kide guztiak hartzeko, balde bat. Ez, balde bi. Lehen solairuan beste bat. Plop, plop, eurria bertan.

**Iruñeko Udalarri eta Parlamentuari bisita**

Biharko bisita goitik behera araututa dago. Borboi errege-erreginek Iruñeko Udalarri bisita egingo diote lehendabizi, goizeko 11:15ean. Han zinegotziak agurtuko dituzte, eta osoko bilkuraren aretoa eta alkatearen bulegoa bisitatuko dute gero.

Ondoren, Parlamentura joango dira. Sarreran Espainiako Kongresuaren eta Nafarroako Gorteen presidentek harrera ofiziala egingo diete, eta ondoren hautetsi guztiak agurtuko dituzte eraikinaren patio nagusian. Egoitzari bisita eta gero, hitzaldiak, patioan bertan.

Balderik gabe, edo plop, plop?